

N. 275215

ZRV
3478

IHS.

MISIO SANTUAREN


OROIPENA

JESUSEN COMPAÑIACO MISIONISTAC

TOLOSAN EMAN ZUENA.




TOLOSAN :



Lalama-ren alargunaren moldizteguian.

1853.



JESUS GURUTZEAN JOSIARI.

Oracion.

; O Jesus ona eta chit gozoa ! zure aurean belaunico jarririe, eta al dedan devocioric andienarequin erregutzen eta escatzen dizut iracequi itzatzula nere biotzean fede, esperanza ta caridadeco sentimentu biciac, nere pecatuen damutasun eguiazcoa, eta ez gueyago peccaturic eguiteco vorondate osoa, nic amorio ta erruqui aundiarequin zure bost llagac consideratzen ditudan bitartean, beguien aurean euquiaz David profeta santuac zugatic esan zuana : *Zulatu ditue nere escuac eta oñac : contatu ditue nere ezur guciac.*

NOTA. Oracio au confesatu ta comulgaturic devocioz errezatzen duanac Jesucristo gurutzean jositaco imagiñaren aurean, irabaci dezaque indulgencia plenaria edo osoa, eta purgatorioco animai aplicatu leiqueana. (PIUS VII. 10. Apr 1821.)

MISIO SANTUAREN OROIPENA.

JAYERO ESATECO ORACIOA.

¡ O nere Jesus maitea ! seculan etzaizquit aztuco zuc misio santu onetan eguin dizquidazun mesede andiac. Zuc biotzera itzeguin didazu , beguiac zabaldu dizquidazu nere estadu charra ezagutze-co , zu billatzeco indarra eman didazu : eta topatu zaitut , artu nazu aita on batec becela zure gracion nere pecatuac barca-tuta : eta ala ere contentu ez izanic , ce-rori sartu cera nere barruan , nere janaria comunio santuan izateco.

Orañ bada ¿cér emango dizut aim-
beste mesedegatic ? ¿ Nere anima , gor-
putza , potenciac , sentidu eta facultade
guciac ? Ara danac , eta esango dizut Aita
San Ignaciorequin :

Artu ezazu, Jauna, nere libertade gucia,

nere memoria, entendimentua eta vorondate gucia, daucadan gucia zuc eman didazu, guztia zuri biurtzen dizut, eta zure vorondatera osoro entregatzen naiz, bera gobernatu nazan. Bacar bacarric indazu zure amorioa zure graciarequin batean, eta nai beciñ aberats izango naiz, ez del nic beste gauzaric escatzen.

Ez, nere Jauna, ez ditut zure contra biurtuco zuc eman dizquidazun doayac: ez gueyago becuric. Erreiña ezazu zuc bacarric nere biotzean; munduac, dea-bruac eta araguiac ez dezatela an parteric izan.

¿Eta nola berriz pecatu mortal bat ere eguin nezaque, ambeste mesede zugandic artuta? Icaratzen naiz, Jauna, au guerta ditequeala pensatuaz bacarric. ¡O nere Jaungoico maitagarria! eman idazu indarra eta laguntasuna pecatuan ez erorteco. Baña ori ezta asco: nic ez nuque

nai peccatu venialic edo faltarie chiquiena ere zure contra eguin, eta deseatzen det al dedan guztian zuri gusto ematea. Oyec dira nere asmoac misio santu onetan artutacoac, eta benebenetan cumplitu nai ditut, erdica zurequin ibilli bague. *Esan det: oraiñ asi naiz. Jaungoicoaren obra da au.* Adios mundua zure zoraqueri ta embusteriaquin: adios araguaia zure ats-eguiñ ciquiñaquin, zure erregalo samiñaquin: adios espiritu infernueoa zure trampa ta engañu gueciaquin.

¡O nere Ama Santissima Virgiña Maria! irichi idazu zure Seme Jaincoagandic, berac alaco misericordia aundiarequin eman dizquidan asmo santu oyec gordetzeco laguntasuna: eta nere aldetic aleguiña eguiteco, gogoan sarri iduquico ditut zorioneco egun oyetan aditu ditudan eguiac.

MISIO SANTUAN ADITUTACO EGUIAC

SARRI GOGOAN EUQUI BEAR DIRANAC.

1. ¿Certaco Jaungoicoac ecerezetic atera ninduan? ¿Emengo ondasun utsa balio duen oetaraco? alperquerian eta pecatu edo gaiztaquerietan vicitzeco? utsezco onra piscaren bateraco? ¡Ah! ori guztia, quea becela, bereala pasatzen da. Beste gauza obe bateraco eguin ninduan Jaunac, au da, bera alabatzeco ta servitzeco, eta onela nere anima salvatzeco. ¿Nun topatuco det fiñ bat altuagoa, eta neretzat provechu gueyagocoa? ¿Cer da munduco Erregueac servitzea Jaungoicoa servitzearen aldean? ¿Eta cer da niri nere anima salvatzea aimbat importa zaidana? ¿Cer valio dit niri mundu guztia irabazteac, baldin anima galtzen badet?

2. ¿Eta aiñ erraz galtzen da Jaincoa, eta cerua, eta anima pecatu madaricatua-

requin? ¿eta orí instante bateco gusto bategatic, ogui pusca bategatic, jolasean eta utsagatic? ¡O zoraqueri icaragarria!

3. Baña contu; eriotza nere ondoren dator corrica, laster arrapatuco nau: bearbada aurten, ill onetan, aste onetan, gaur edo ordu onetan aitzeneco arnasa emango det, naiz aberatsa, gaztea, indartsua eta esperanza aundicoa izan nadilla: eta ez daquit noiz ta nola. ¡Cer balioro dirade niri orduan emengo onra, ondasun eta gustoac, ceñacgatic Jaungoicoa ofenditu nuan? ¿Eta nola atrevituco naiz Jaungoicoaren contra pecatu eguiten, bada ez daquit lenengo peccatnaren ondoren vicitza quenduco ote diran? ¡Ay nizaz, baldin eriotzac peccatuan arrapatzen banau!

4. An dago Juez zucena, guztia icusten dnana: erruqui gabe escatuco dit nere bici guztico contua, eta esango dit: nic eman dizut legue santu bat, eta ambeste medio

zure anima salvatzece ta ni servitzeco, am-
 beste bider otseguin dizut, ambeste dem-
 bora eman dizut. ¿ Cer eguin dezu? ¿ Nola
 alaco mesedeai eta nere misericordiar
 erantzun diezu? ¿ Certan dembora pasatu
 dezu? Misericordiaric zuretzat gueyago ez
 dago, justiciaren dembora etorri da.. Juicio
 onetan ¿ cer erantzungo det nic? ¿ Cer aïo
 oraiñ nere concienciac? Juicioa acabatuco
 da bereala cumplitu bear dan salvacioco
 edo condenacioco sentenciarequin. ¿ Nola-
 coa izango da niri emango zaidan senten-
 cia? Oraiñ cerua dago goyan, infernua
 bean, eta ni bien erdian. ¿ Nora noa ni biçi
 naicen moduan? ¿ cerurá ala infernura?.....

5. ¿ O infernu izugarria! ¿ utsagatic, ton-
 taqueri bategatic, amilca betico infernura
 juatea! Inglaterraco erreguiña batec erio-
 tzaco orduan penaz esaten zuan: ¿ Berroguet
urteco erreñua, eta betico infernua! ¿ O per-
 sona delicaduac, Jaungoicoagatic eta ceon

animargatic ecer sufritzen ez daquizuenac!
 ¿Nor da zuetatic infernucosua sufritu de-
 zaqueana? Atera ditzagun bada demboraz
 contuac, berandu izan baño lenago. Bestela
 alperric beti esan bearco degu: *beraz egui-
 azco bidea utseguin degu.*

6. Eta zù, ceru ederra, ceñagatic ambeste
 eguin eta sufritu zuten apostoluac, marti-
 riac, confesoreac eta doncella delicaduac
 ¿posible ote da nere culpaz zù betico galt-
 zea? ¿Eta orí neque pisca bat ez artzea-
 gatic, gusto cital bategatic? ¿Eta au Jaun-
 guicoa gurutzean josiric icusi ezquero guri
 cerua irabazteagatic? Ez, nere Jesus mai-
 tea, ez det orrelaco choraqueriric eguin-
 go. Esquer asco ematen dizut, cergatic ceu
 etorri ceran cerutic, niri araco bidea era-
 castera; bide onetatic iñoiz ez irteteco, ará
 nere asmoac.

NERE ASMOAC

EDO BETI EGUIN BEAR DITUDAN GAUZAC.

1. Jaungoicoa gauza gucien gañean amatuco det, eta Jaunaren contraco itzic ez da nere autic irtengo. Erligio santuco gauzai errespeto aundia ecarrico diet. Cristauac jaquin bear duan dotriña icasico det, eta nere familiari eracutsico diot.

2. Birau, juramentu eta beste itz escandalogarriric ez det secular esango. Nere trabaju ta vicitasunetan esango det: *izan dedilla Jaungoicoaren icenean edo amorioagatic: Jaunac paciencia eman deidala: Jaungoicoac barcatu deyola, juicioa eman deyola: Ama santisima, lagundu idazu: Jesus maitagarria, barcatu idazu.* Etsayaren izenaren eta beste orrelaco itz itsasien lecuan esango ditut Jesus, Maria ta Joseren icen santuac, edo beste itz on batzuec. Promesic eguin badet, luzatu bague cumplituco det.

3. Jayac ondo gordeco ditut, cergatic Jaunaren egunac diran. Jaungoicoarentzat gauza erraza da beste alde batetic quentzea, nic meza utzita edo lanean jayetan irabaci nai dedana. ¿Eta cer izango da nizaz, egun santu oyec pecatuetan pasatzen baditut? ¿Cembat cristau dira jayan aste gucian baño pecatu gueyago eguiten dituenac? Egun santu oyec eren contra jaiquico zaizte juicioco egunean.

4. Nere guraso ta nagusiagoai bear dan errespetao ecarrico diet, beren umore ta genioac humill sufrituric. Erligio gabeco echean banago, al dedan lenena irtengo naiz andie. Nere ume, mirabe ta mendecoac Jaungoicoaren semeac bezala tratatuco ditut, ez arroqueriarequin eta itz edo modu charraquin: oyen gorputzeco eta animaco ona aleguiñez billatuco det. Nere echean edo nere mendecoetan ez det escandaloric eta bicimodu gaiztoric sufrituco. Ondu

naiz ez dutenac, campora leen baño leen.

5. Nere projimoa neu becela amatuco det: ez diot iñori gaitzic eguingo ez itzez ta ez obraz: besteen faltac pacienciaz sufrituco ditut; guciaquin baquean aserre ta gorrotoric gabe portatuco naiz; gaitzagatic ona biurtuco det. Jan da edan bere neurrian, beñere ez gueyegui.

6. Pensamentu, itz eta obra gucietan chit garbia izango naiz: icaratuco naiz jaquiñic ceññ erraz becatu mortala eguiu dittequean gay onetan. Urriñ nigandic gaurco egunean usatu oi dan itzcunde lotsagarria, mundua escandaloz betetzen duana, baztar guztiac eta persona onraduac lotsatzen dituana, eta jolasean edo ecerez balitz becela ambesteren auetan dabiliena. ¿Cer contu emango diote Jaungoicoari, ambeste animari etzequien gaiztaqueric eracutsi diztenac ayen beguiac iriquiaz, escandalo emanaz? ¿Nola biurtuco diote Jesucristori bere bi-

citza ta odolarequin erosi cituan anima gais-
so oriec? Canta charric ez det iñoiz cantatu-
co; onaquin asco det, eta obeto egongo naiz.

7. Ez diot iñori ecer quenduco edo cal-
teric eguingo: bacoitzari berea emango
diot, bada bestela ez dago neretzat salva-
cioric. Beguiratuco det ya iñori calteric e-
guiñ diodan, edo languilleai, mirabeai edo
besteren bati bear dana pagatu gabe utzita,
bear baño guchiago laneguinda, besteen
gauzac alperric galduta, besteai gaitz egui-
ten lagunduaz edo beste edoceiñ modutan.

8. Guezurric, falso testimonioric, mur-
muracioric, edo iñori onra quentzeco edo
pena emateco gauzatic ez det esango. Min-
gaña gordeco baliz, gorroto ta naibague
asco quenduco liraque: iñori creditoric
quendu badiot, biurtuco diot bear dan be-
cela. Ez det erraz iñorgatic gaizqui pen-
satuco, ascotan oi dan becela.

9. Deseo gaizto gucietatic ondo gordeco

naiz; bada Jaunac biotza icusten du, eta asco da pecatu eguiteco intencio charra idnquitzea.

10. Eliza santaren mandamentuac gordeco ditut, eta beraren gauza guciac errespeto aundiarequin beguiratuco ditut. Cristau batzuen faltac ez dizquiot Elizari egotzico, ascoc eguiten duen bezala: eguin dezadan nic nere bearra eta Elizac eracutsita aguintzen dirana, ta gaiztoac eren contua emango dute.

11. Alperquericac ala pobreetan nola aberatsetan vicio asco eracarten ditu: andic dator guraso ascoc beren familiac ondatzea eta miserian euquitzea, humeac beren bicimodua ateratzeco estaduan ez ipintzea; andic datoz lapurreta eta beste gaitz asco. Orregatic cereguiñen bat equico det neretzat egoquia dana: ala dembora obeto eta provechu andiangoarequin igaroco zat.

12. Jaincoac ipinten nauan bicimoduan contentu izango naiz: aberats banago, acordatuco naiz pobreac eta obra onac nere contura Jaunac ipiñi dituala, eta berac emandaco ondusunac gaizqui gastatzen baiditut, contu estua escatuco dirala. Pobre banago, ez naiz quejatuco, ez det aberatsen contra ecer esan edo eguingo, gogorra edo eutsia bada ere; nere miseria pacienciarequin eramango det, eta al dedan moduan erremediatuco det. Acordatuco naiz Jesucristoc pobreai zorionecoac deitzen diela; baña ez eren pobreza gaizqui eramaten duenai, edo beren naguitasunez eta vicioz premian daudenai; baicic Jaincoaren escuti becela pobreza artzen dutenai, edo Jesucristo gure Jaunaren amorioz sufritzen duenai. Pobretasuna ta aberastasuna Jaincoagandic datoz; pobreac aberatsen bearra daucate, eta aberatsac ere bai pobreena. Jaunac badaqui cer bacoitzari eman.

ASMO SANTU OYETAN IRAUTECO
EBIDEAC.

Jesusen eta here Ama Santisimaren Biotz santuai devocio aundia izango diet. — Mayatzeco illean egunero cerbait eguingo det Ama Virgiñaren onran. — Urteaizquenean Jaincoari esquerrac emango diot urteco mesedeac gatic, eta pensatuco det nola urtea pasatu dedan, icusiaz urrengo urteraco nolaco bicimodua Jaungoicoac escatcen diran.

ILLERO. Confesatu ta comulgatuco naiz, jai aundiac eta nere iceneco santuaren eguna edo aren guertuco jayen bat utzi gabe. — Misio santuco oroipen au iracurrico det, nola gorde dedan edo certan faltatu dedan icusiaz.

GOICERO. Jaunari nere obra guciac ofretuco diozcat, pecatu bague eguna pasatzeco laguntasuna escatuco diot, eta nere egunero oracioac esango ditut. Orrezaz gañera

esango det iru bider: *¿Certaco nago ni munduan? Anima galdu ezquero, gucia galdua dago. Pecatu bat gueyago eguiten badet, bearbada infernua nereia det. Nere Aingueru guardacoa, gorde nazazu. Meza albadet entzungo det.*

GAUERO. Nere oracioac esango ditut. Galdetuco diot nere concienciari nola eguna igaro dedan: faltaric badago, barcacioa escatuco diot Jesus maiteari, ez berriz peccaturic eguiteco asmo firme batequin. Esango det iru aldiz: *¿noiz ilco naiz? Eztaquit. ¿Nola ta cer modutan, laster edo berandu? Eztaquit. ¿Nora joango naiz, onela bici izanda? Ama Santisima, oraiñ eta eriotzaco orduan amparanazazu.*

EGUNERO. Errosarioa familiarequin errezatuco det. Sarri Jaunagana alchatuco det biotza, eta azquenic nere neque ta lanac esquiñico diozcat.

Bici bedi Jesus.

BAIMENA ETA INDULGENCIAC.

Pamplonaco Obispo Jaunac ematen
ditu berroquei eguneco indulgenciac li-
burucho onetan dauden oracio bacoitza
devocioz iracurteagatie.

Pamplona 28 de Mayo de 1853.—
Enterados por lo que Nos han infor-
mado los peritos en la lengua vascon-
gada y sujetos de toda nuestra confian-
za, aprobamos el antecedente impreso,
y concedemos 40 dias de indulgencia
á todos los que leyeren devotamente
cada una de las oraciones que el mismo
comprende.—*Severo, Obispo de Pam-
plona.*

REPUBLICA DE LA PATRIA

El Presidente de la República
Don Manuel Beltrán
Don Juan Manuel de Rosas
Don Juan Manuel de Rosas
Don Juan Manuel de Rosas

— 1853 —
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853

El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853
El día 28 de Mayo de 1853